

ALL IN ONE

whatever you need

Zer?

Startinnova proiektua gauzatzeko aukeratu dugun ideia aplikazio bat egitea izan da. Gure inguruan ezagutzen ditugun aplikazioetan oinarrituta orainarte egon ez den gauza berri bat sortu dugu. Aplikazio honen erabileraren xede momentuan beharrezkoa suertatu daitekeen zerbitzuak eskaintzea da.

Nola?

Gure webgunearekin zerbitzu desberdinak erabiltzeko aukera izango dute erabiltzaileek. Lehenbizi izena eman beharko da erabiltzaile bihurtzeko. Ondoren zerbitzu mota aukeratuko du bezeroak. Behin hori eginda, mapa bat agertuko zaio libre dauden langileak non dauden kokatuta ikusi eta gutxi-gora-behera zenbat denbora igaroko den eskaeratik iritsi harte ikusi ahal izateko; horrez gain, zerbitzu bakoitzak enpresa desberdinen linkak izango ditu, beraz, zerbitzu guztiak aplikazio berean egongo dira, erabiltzaileari erraztasunak emanez. Langilea behar duen tokira iritsiko da eta zerbitzua egingo du. Eta azkenik, erabiltzaileak ordainketa eta emandako zerbitzuari eta langileari buruzko baloraketa egingo du; modu horretan hurrengo erabiltzaileek zerbitzua nolakoa den ikusteko aukera izango dute.

Nolako zerbitzuak?

Lehenengo orrialdean zerbitzu mota autatzeko aukera izango du bezeroak. Bertan 3 jarduera mota nagusi azalduko dira eta beste zerbitzu bat gehitzeko aukera ere izango du erabiltzaileak. Halaber, gehitzen duzun zerbitzu hori jasotzeko langileekin hitz egingo litzateke eta prest egongo balira edo gaitasuna badute, gauzatzea posible izango litzateke.

1. Lehenengo atal honetan, konponketa zerbitzuak eskainiko dira. Esaterako: garbigailu konponketa, zerradurak irekitzeko, komunak konpontzeko etab. Puskatuta dagoen edozer konpontzeko aukera hemango du.
2. Bigarren atal honetan, zaintza zerbitzuak eskainiko dira. Adibidez: umeen zaintza, helduen zaintza, txakurren edo edozein motatako abereen zaintzak etab.
*Covid-19arekin atal honek ez du oso ondo funtzionatuko.

3. Hirugarren atalean berriz, pertsona batek egin behar dituen errekaduak langile batek bere ordeztu egiteko aukera izango du. Kasu, tintoreriara arroparen bila joateko denbora ez duen batek atal honetako pertsona bati eskatu diezaiotke hori jasotzeko. Edota, erosketak egitera jun nahi ez duenak ere zerbitzu hau eskura dezake, beste norbaitek egingo dio eta.

Gauza bera, edonork paketeak jaso behar edo beste nolako erosketak egin behar baditu. Esaterako arropa; langileak arropa erosiko luke, momentuan etxera eramanez bezeroak jantzi dezan eta gustatzen ez zaizkion jantziak langileak bueltatuko lituzke, modu honetan kola luzeak egitea aurreztuko luke erabiltzaileak.

Hemen ere, otordu baterako chef pertsonala kontratatzeko aukera dago edo janariarekin lotutako erosketak egin daitezke. Adibide gisa, orain Covid-19 arekin jantziarekin bazkaltzea nahiko arriskutsua da baina baliteke pertsona batek janari hori nahi izatea. Ez dago arazorik, gure langileek bezeroarentzat eskuratu dezakete janaria edo chef bat etxera etortzeko eska dezakete.

Deskontuak eta zerbitzu bereziak:

Erabiltzaileak denbora luzean zehar aplikazioa erabiltzen aritu badira, deskontu bereziak eskainiko zaizkie eta beste zerbitzu berezi batzuk ere. VIP atal bat ere prestatuko dugu ordaintzeko prest dauden horientzat. Eta beraiek eskuratuko dituzten zerbitzuak besteengandik desberdinak izango dira. Hau da, kalitate hobea edo zerbitzuak azkarragoak bilakatzeko aukera izango dute.

Nolakoa izango da?

Aplikazioa hiru zati nagusitan banatuta egongo da lehenago azaldu den bezala. Lagarren atalak beste zerbitzu posible batzuk eskatzeko aukera emango du. Eta gure enpresak eskainiko dituen langile eta zerbitzuek gain beste enpresen linkak egongo dira aplikazioan; horrenbestez, zerbitzuen eskuratzea erraztuko duen aplikazioa sortuko dugu, dena leku berean aurkitzea ahalbidetzen duelako. Informatiko batek sortuko du aplikazioa eta ahal den errazena izango da honen erabilera. Izan ere, oso argi azaldu da egongo dira heman beharreko pausoak.

Langileei dagokienez, edonork parte hartzeko aukera izango du gure enpresan. Guk bertan egingo ditugu lanerako elkarrizketak eta beharrezko ikasketak eta prestaketak eduki dituztela ziurtatuko dugu hautatu baino lehen. Behin egokiak direnak aukeratuta, frogazko zerbitzuak eskeinitu dituzte eta gure langile espezializatuek egindako lana aztertu eta kalifikatuko dute pertsona batzuek. Horrek, langileak merkatura balorazio sendo batekin sartzeko ahalaziko du. Bezeroek hartuko dutena nolakoa den jakiteko.

Covid-19 ari erreparatuz, ez diogu oztopo bat bilakatzen utziko gure proiektua aurrera eramateko garaian. Hori dela eta, langileek test azkar bat pasa beharko dute lanera joan baino lehen eta beti segurtasun neurriak beteko dituzte. Hori egin ezean kaleratuak izango dira segituan.

Nork erabili dezake?

14 urte gorakoek erabiltzeko aukera izango dute, janariari dagokion zerbitzuak bakarrik eskuratzeko ahalmena izango dute. Baina beste zerbitzu guztiak 18 urteko gorakoek besterik ez dute erabiltzeko aukera izango.

Gizartean eragina?

Coronavirusa dela eta, jende askok bere lanpostuak galdu egin ditu edo ERTEetan gelditu dira. Sortutako aplikazioaren helburu nagusia jende honi lana ematea eta era berean, gizarteko ekonomia berriz ere martxan jartzea da. Gure langileen gehiengoa egoera honetan dagoen jendea izango da. Dagoeneko lana duen jendeak gure enpresan lanean asi nahiko balu espazio librerik egotea itxaron beharko luke. Izan ere, aipatutako egoeretan dagoen jendeak lehentasuna du lanean hasterako garaian, hain zuzen ere, hauek lanik ez dutelako.

Ondorioak:

Gure aplikazioan inbertitzeak gizartean eragin handia izango du, onerako. Guk zerbitzu onak eta prezio asegarrian eskainiko ditugu. Gainera, zerbitzu guztiak weborri edo aplikazio berean egoteak biztanleei errazago egingo zaie edozein zerbitzu eskuratzeko garaian. Orain ematen ari diren egoeren aurrean moldatuz eta beharrezkoak diren neurriak hartuz, batez ere segurtasunari dagokienei. Beraz, ekonomiari bultzada bat emateko era aurrerakoi eta berri batean, gure aplikazioa tresna aproposa iruditu zaigu.